



Ez dute hutsik egingo

Olentzero eta Mari Domingiri elkarizketa / 8

Azken erabakia herritarren esku egongo da


Urnietako Udalak Plazido Muxika estaltzeko hiru aukera jarri ditu balioan. Azken hitza herritarrei eman diete. Bozkatzeko epea zabalik dago / 4



Lehen saiakeraren ostean, Buruntzako gurutzea eraitsi zuten aurreko ostiral gauean / 3





"Gabon Giroan" egitarauan aldaketak iragarri dituzte, egoera epidemiologiko zaila dela medio / 9



Urnietan oso ezaguna den Karrazedo-Lizeaga sendiak Andoaingo Txitibar erosi eta ateak ireki ditu berriro / 6-7

Nola estali nahi duzu Plazido Muxika plaza?

Bozkatu urtarilaren 20ra arte



Urnietako
udala



IRITZIA

MIKEL ARBERAS ANDOAIN

Nekea lehergailu bilakatzeko bidean

Hilabete ugari igaro dira koronabirusaren ondorioz pandemian sartu ginenetik. Sasoi luzez egon gara etxean sartuta; lehen egunetan komuneko papera ere agortu zen mundu osoan sortu zen beldurra medio. Musukoan menpe bizi izan gara (maskara ahaztu duzula ohartu eta etxera buelta egin izan duzu). Oro har, ezarritako muga guztiak errespetatu dira. Aiton-amonak ikusi gabe denbora luzez egon gara. Egoista dirudien arren, gazteak eta ez horren gazteak direnak, sozializazio-guneak, moduak eta erak sakrifikatu dituzte. Eta, horrela, amaigabea den beste horrenbesteko zerrenda luzearekin.

Bestalde, jasotzen ari garen gauza bakarra ezjakintasuna da. Atzera begira, txertoekin gutxinaka normaltasuna berreskuratzen hasiko ginela hitzeman ziguten. Ni eta gizartearen zati handi bat txertatua gaude, baina Jaurilaritzak planteamendua ez du askorik aldatu. Koronabirusarekin bizitzen ikasi beharko dugu, baina noiz edo nola? Demagun euskaldunen %95 txertatzea lortzen dela, baina 'normaltasunerako' zantzurik ikusten ez dela. Berriro ere ezjakintasuna. Hori guztia gutxi balitz, 4.000 osasun-langile kaleratu zituzten, tartean, 750 aztarnari

(%94). Egoera oso larria izan ezean, kontsulta presentzialak eta ebakuntzak atzeratu dituzte. Bada koronabirusa harrapatu eta zortzi egunera deitu dienik ere, langile gutxi daudela medio. Koherentzia falta izugarria eta gizarte oso baten ezjakintasuna areagotzen.

Zerbait gehiago aipatu nahiko nuke, Covid Ziurtagiria. Onintza Enbeitak Berrian idatzi zuen iritzi artikulua hartuko dut oinarri: "Segurtasun faltsua". Askorako balio ez duen neurri polemikoa. Berdin-berdin kutsatu zaitezke, txertatua egoteak ez zaituelako kutsatzetik babesten; gainera, langileei polizia-lana egitearen karga ezartzen zaie. Nafarroan duela pare bat aste jarri zen Ziurtagiria indarrean eta kutsatzeak ez dira jaitsi. Katalunian ere antzekoa da egoera. Baina zertan ari dira? Indartu osasungintza, hori bai bermea, eta ez oraingo desastrea! Hiru pauso aurrera eta bi atzera egiten ditugun bitartean, ezjakintasuna handiagoa da eta amaiera lausoagoa ikusten dut. Haserre nago, nekatua. Ezerk ezertarako balio ez duenaren irudipena dut. Martxa honetan, nekea lehergailu bihurtuko du ezjakintasunak, batek jakin zein norabidetan, eztanda eragiteraino.

BALORAZIOA

OROITUZ, ANDOAINEN ELKARTEA ANDOAIN

Buruntzako gurutzaren eraisketa

Buruntzako gurutzea eraistearren berriak agerian uzten digu, berriz ere, 1978tik Espainiako Estatuko demokraziak arrastaka dakarren defizit sakona, 1936ko kolpe militar faxistarekin eta ondorengo diktadurarekin lotura zuzena duena. Hasteko eta behin, bizkar eman zioten nazioartean onetsita dagoen "Egia, Justizia, Erreparazioa eta ez errepikatzeko Bermeak" kontzeptua aplikatzeari.

Trantsizio politikoa gidatu zuten indarrek amnesia eta inpunitatea ezarri zuten frankismoaren eta historikoaren krimenei zegokienez, eta alfonbra gorri "demokratikoa" eskaini zieten diktadurako estatu-egitura guztiei. Eta, horrexegatik, gaur egun, eta, urrutira joan gabe, Errepublikak eta demokrazia defendatu zuten ehun mila demokratek baino gehiagok bide bazterretan lurperatuta jarraitzen dute, eta biktimek egia eta justizia aldarrikatzen jarraitzen dute beren senideentzat.

Memoria antifrankistarekin lotuta dagoen defizit demokratikoaren testuinguruan, gure artean dira oraindik sinbolo frankistak. Andoaingo Udal artxiboko dokumentuek, prentsa historikoak edo urte hauetan bildutako lekukotza pertsonalek ez dute zalantzarik uzten Buruntzako gurutzaren jatorriaren gainean: Andoaingo

Falange Española de las JONS erakundea izan zen berau jartzea bultzatu zuena 1939ko abuztuan, eta eginkizun hori Udalaren laguntzarekin egin zuen. Horrela, hiru urte atzera, Buruntzako gailurraren "konkista militarrean", "gorri" eta "separatisten" aurka borroka eginez hil ziren "Askapenerako Gurutzada Nazional-Katolikoko" kideak ohoratu nahi izan zituzten. Egun eta aste batzuk lehenago errepresio basatian parte hartze zuzena izan zuten altxatuak eta gaizkileak ohoratu nahi izan zituzten, hots, Nafarroa, Goierri, Tolosa eta Andoain aldeko abertzale, sozialista, komunista eta anarkisten kontra errepresio basatia gauzatu zutenak.

1939ko ekimenaren sustatzaileek, gurutzea bezalako sinbologia katolikoa baliatu zuten, kolpe militar faxista bedekatu zuen Espainiako Eliz Hierarkiaren onespenerarekin.

Hamar metroko gurutzea ez zuten tontorreko punturik garaiearen jarri, baizik eta Buruntzaldeko herri guztietatik gehien ikusten zen tokian. Helburu bat baino gehiago zeukaten buruan egileek. Alde batetik, beren hildakoei gorazarre egitea, esan bezala. Bestetik, argi eta garbi gera zedin nor zen "irabazle" eta nork agintzen zuen lur horietan. Eta, halaber, Buruntzaldeko herrietako makina bat biktima umiliatzeko (hots,

erailak, espetxeratuak, ilea moztuta eta ibilaldia eginda zigortuak, langileen batailloietara kondenatuak, betiko erbestera behartuak...).

Zapatero presidentearen garaiko Memoria Historikoaren 2007ko legeak berriz ere umiliazioko eta frustraziorako arrazoiak eragin zituen frankismoaren biktimek artean. Ez zen tresna baliagarria gertatu demokraziak bere iraganarekin eta frankismoaren biktimekin dauzkan justiziazko zorrak kitatzeko. Baina aipatu lege horretatik zerbait salbatu beharko bagenu, ikur frankistei buruzko kapitulua litzateke, ikur horiek kentzea agintzen duena.

Oroituz jakitun da 2007ko lege hori aplikatze hutsa nahikoa izango zela agintari publikoek Buruntzako gurutzea kentzea erabaki zezaten. Egokiena izango zen erretiratze hori jada gauzatuta egotea; hori bai, jendartean jatorriari, sustatzaileei, sinbolismoari eta abarri buruzko pedagogia egitearekin batera. Izan ere, aitortu behar dugu Buruntzaldeko biztanleen artean badagoela ezjakintasuna oraindik gurutzaren gaineko historiari dagokionez, goian aipatu ditugun frankismoarekiko amnesia eta inpunitatea izanik –1978an ezarri zitzaizkiguna– gabezia horren eragile nagusienak.



Aiurri 2022ko urtarrilaren 4an argitaratzen hasiko gara berriro.

Bitartean albisteak aiurri.eus webgunean.

URTE BERRI ON, IRAKURLE!

www.aiurri.eus



BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Etxe etxeko harpidetza-sistema.
Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urrietan, 32 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus
@aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetzak:
Garbifre Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Banatzaileak: Rocío Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urrieta).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.
Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



ANDOINGO UDALA



Urrieta

DIRLIZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Hizkuntza Berlintasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gurutzea ikusi gabe esnatu gineneko goiza

Abenduaren 18ko goizean, Buruntza mendira jarrita, paisaiak zerbait ezberdina erakusten zuen. Elementu bat falta zitzaion mendi gainan: gurutzea. Geroztik zeresan handia eman du gurutzearen eraisketak

Erredakzioa ANDOAIN

Gurutzea falta zela agudo batean joan zen zabaltzen eskualdeko herrietan (Andoain, Hernani, eta Lasarte-Oria) biztanleen artean. Egundoko ikuskizun eragin zuen albisteak, eta eguraldia bikaineko larunbat goiza izaki, bat baino gehiago animatu zen mendizaleez jantzi, eta Buruntza mendiko bidea hartzera. Azkorte ermitatik igo ziren batzuk, Oria edo Buruntza auzoetatik besteak, oinez, korrika nahiz bizikletan. Sinetsi ezinik gehienak, behetik jada gurutzearen falta sumatu arren, goian aurrez aurre eta beren begiekin egiaztatu nahian.

Egia esanda, goi paraje horretan sekula ez dira larunbat goizean bezainbat erretratu pertsonal egin, gurutzearen ondoan.

Hantxe goian, denetariko iritziak entzun ziren larunbat goizetik: aldekoak edo kontrakoak gehien-gehienak, gutxi batzuk indiferentziatzakoak. Egin zena egiteko eskubiderik ez zegoela zionetik bazela garaia zioneraino, arrazoi ugari zabaldu ziren. Goian ez ezik, behean ere, Buruntzaldeko herrietan, nahiz Euskal Herrian, jende-giroan nahiz sare sozialetan, barra-barra zabaldu dira iritziak geroztik, kolore anitzetakoak: halako ekin-



Andoain aldera begira jarrita, gurutzea eraitsita ageri da. AIURRI

tza-bortitzak bizikidetzaren aurka doazela; frankistek hildako frankistak goratzeko jarria zela eta kentzea besterik ez zegokigula; sentimendu katolikoa sinbolizatzen zuela eta ez frankismoa; halako hormigoizko elementuak

soberan daudela gure ingurune naturalatan... Eztabaida bizia piztu du gurutzea eraitsi izanak zalantzarik gabe, eta ez da apaldu egunak igaro ahala. Jendar-teko solasaldi askotan hizketagai izaten segitzen baitu.

Udal Gobernuak gaitzetsi egin du gurutzearen aurkako erasoa

Abenduaren 17ko gauean Buruntzako gurutzea eraitsi zuten eta Ernai gazte antolakundeak bere gain hartu zuen egiletza. Gertaera honen aurrean, Andoaingo Gobernu Taldeak adierazpen bat kaleratu zuen ekintza gaitzesten: "Andoaingo Udalak gogor gaitzesten ditu egindako

sabotaje-ekintzak, eta Andoainek errespetuan eta bizikidetzan oinarritutako udalerrria izan behar duela nabarmentzen du. Andoaingo Udalak azpimarratu nahi du Buruntzako gurutzeak andoaindarrentzat duen balio sinboliko garrantzitsua.

Gurutzearen jatorriarekin bat ez etorri edo arbuiatu arren, Andoaingo Udalak alde bakarreko inposaketa-ekintzak arbuiatzen ditu, jokabide horiek ez baitira inoiz jarrera demokratiko batekin lerrokatuko. Gertatutakoa bizikidetzaren mahaira eramango da, eta bertan balorazioa egingo da eta udal talde guztien artean adostuko dira eman beharreko urratsak".

Eraisketa irudietan



Buruntzako tontorra, abenduaren 7an ateratako irudiak. AIURRI

Lehen saiakera Data zehatza jakiterik ez badago ere, abenduaren 3ko asteburuan egin zuten lehen saiakera. Bi alboetan dauden hamar burniak ebaki zituzten lehen saiakera horretan. Hamar bat eman zuen gurutzeak egoera horretan.



Burni zatiak lurlean agertu ziren, lehen saiakera haren ostean. AIURRI

Tresneria Gurutzearen oinarriaren kanpoaldea burnizko hodiz hornituta zegoen. Lehen saiakera hartan rotaflexarekin edo antzeko tresneriarekin saiatu ziren, mozketa garbi-garbia baitzen. Burni zatiak lurlean barreiatuta agertu ziren.



Eraisketa. AIURRI

Eraisketa Larunbat goizean Buruntza mendira igo eta gurutzerik ez zen ageri. Ostiral iluntzean saiatu ziren, beraz, gurutzea eraisten. Baita erdietsi ere. Goizetik albisteak zeresana eman zuen, herrian eta heritik kanpo ere bai.



Aiurrik azaroan egin zuen argazki-muntaia. 2022koa eskuinaldean ageri diren hiru egitasmoen artean aukeratuko da. AIURRI

Plaza nola estali erabakitzeko garaia da

Hainbat hilabeteko ibilbidearen ostean, azken fasera ailegatu da parte-hartze prozesua: urnietarren esku dago orain 2022an Plazido Muxika plaza nola estaliko den erabakitzea

Erredakzioa URNIETA

Azken fasera iritsi da Urnietako Udalak herriko zein plaza edo parke estali erabakitzeko abian jarritako parte-hartze prozesua: urnietarren txanda da berriro ere; plaza estaltzeko diseinatu diren hiru proiektu horietako bat bozkatu eta zein gauzatuko den erabaki behar dute.

Hori horrela, dagoeneko Urnietan erroldatutako edozein pertsonak bozkatu dezake, 16 urte baino gehiago izanez gero. 2022ko urtarrilaren 20ra bitarte izango da aukera, hainbat modutan.

Aurrez aurreko bozketa

- Formularioa herriko hainbat tokitan kokatutako kutxetan utzita: Bertan, Lekaio, Kiroldegia, Jubilatuen Egoitza, Ega-pe ikastola (Lizardi eta Azkorte) eta Magale ikastetxea (Presentacion eta Salesiarrak).
- Formularioa udalerrian dauden zenbait postontzitan utzita.

Online bidezko bozketa

Udaleko webgunean eskuragarri dago formularioa, era digitalean betetzeko. Horrez gain, Udalaren mugikorreko aplikazioaren bidez ere bozka emateko aukera izango da.

Halaber, Udalak informazio-liburuxkak banatu ditu herriko

etxeetara, herritarrek prozesuaren eta azken bozketaren gaineko informazio guztia izan dezaten. Bestalde, hautazko hiru estalkien irudiak tamaina handian ikusi ahal izango dira Lekaio kultur etxeko sarreran, baita horiei buruzko xehetasunak ere.




Urnietako
udala

Hiru aukeren artean



1. URNIETAKO UDALA

1. proiektua: Zur laminatua dago lehenengo proposamenaren oinarrian. Hala, plazaren 654 m² hartuko lituzke estalpeak. Estaldurari dagokionez, sandwich panela ipintzea da asmoa, zelula polikarbonatoarekin.



2. URNIETAKO UDALA

2. proiektua: Plazido Muxikaren 694 m² hartuko lituzke bigarren egitasmoak. Horrela, proiektu hori hautatuz gero, egitura metaliko batek estaliko luke herriko plaza. Estaldura txapaz egina dago, baita polikarbonatoz ere.



3. URNIETAKO UDALA


3. proiektua: Hiru egitasmoetatik estaldura txikiena duena da hirugarren aukera: 630 m² hartuko lituzke. Metalez egindako egitura da, eta, egitasmo hori hautatuz gero, polikarbonato zeharrargiaz estaliko litzateke Plazido Muxika.

Gipuzkoan gailurrera iritsi al gara?

Positiboak eta intzidentzia-tasa metatua handi samarrak izanik ere, datuek diote aldagai gehienek egonkortzera jo dutela. Ez da berez albiste txarra, Gabonen osterako datuen okertze bat aurrikusten baita

Erredakzioa ANDOAIN

Abenduaren 20ko eta 13ko boletinak alderatzen jarrita, positiboaren beherakada antzematen da Andoainen eta Urnietan. Intzidentzia-tasa metatua ez da asko aldatu, eta hori egoera honetan seinale on gisa ikusi behar da. Urnietan 1.000tik gorakoa da, eta Andoainen eta Gipuzkoan 1.500 ingurukoa. Gabonen atarian, seinale baikor txikiena ere albiste ontzat har daiteke. Gabonetako ospakizunen ostean, urte hasiera zaila aurreikusten da ospitaleetan. Aurreko astean, 38 heriotzen berri eman zuten. Asteetik atera kopurua bikoiztu egin da.



URKOVALLEJO

Covid-19 Ziurtagiria behar da

Eusko Jaurlaritzak neurria indarrean jarri eta biharamunean ostalaritza-guneetan ohikoa bilakatu zen ohartarazpena. Gune horien barnealdera sartzeko nahitaezkoa da Covid-19 ziurtagiria erakustea. Udal eraikinetan martxan da ere, hala nola, kiroldegi eta kultur guneetan.



AIURRI

Ziurtagiria inprimatzeko aukera

Urnietako Udalak ziurtagiria Bertan arreta-zerbitzuan aurrez aurre inprimatzeko aukera ematen die etxean atera ezin duten herritarrei. Horretarako, nahikoa izango da Osakidetza osasun-txartela eta horri lotutako telefono mugikorra eramatea. Astelehenetik ostiralera: 07:30-11:00 eta 11:30-14:30.



MAXIXATZEN



Koronabirusari lotutako orainkaria Aiurri.eus gunean.

- Osasun Sailak zabalduetako datuak, eskualdera ekarrita.
- Analisiak, grafikoak, datuak.
- Atal berezia: COVID-19 | DATUAK

w w w . a i u r r i . e u s





Nerea, Iker eta Egoitz Karrazedo-Lizeaga, Zumea plazako Txitibar taberna-jatetxeko ardura hartu duen sendia. AIURRI

Txitibar taberna eta jatetxea berriro zabalik

Urnietako Karrazedo-Lizeaga sendiak erosi du Zumea plazako taberna-jatetxe ezaguna; Santomas egunean inauguratu zuten, iluntzeko 19:00tan. Andoaindarren bilgune izatea dute helburu

Andoni Urbistondo ANDOAIN

Abenduaren 21a, San Tomas egunean hain ohikoak diren txistorra eta ogiaz gain, taberna berri baten inaugurazioarekin iritsi da Andoainera. Berria, kakotx artean, Txitibar tabernak hamarkada askoko historia baitauka. Berria, berritu egin dutelako jabe berriek, beste itxura bat eman. Oraingo Txitibar taberna aurrekoa baino askoz argitsuagoa da, beste kolore batekoa, eta dekorazioa ere berezia.

Beren tabernei ukitu, ñabardura bereziren bat eman zaleak baitira Txitibar tabernako jabe berriak, Urnietako Karrazedo-Lizeaga sendia. Hiru anai-arreba dira: Nerea, 46 urtekoa, Iker, 44 urtekoa eta Egoitz, gazteena, 35 urtekoa. Urnietan eta Donostiako Martutene auzoan ezaguna da familia hori. Mikel tabernarekin hasi zuen ostalaritza-negozioa beren aita zenak, Mikel Karrazedok, Martutene auzoan, 1987an. Urnietako Guria taberna etorri zen ondoren, 2013an, eta Donostiako Txomin-Berri auzoan hirugarrena, Ibai-alde taberna, 2020 urtean. Hiru tabernetako gestioak buruko min ugari sortu dizkie, baina, Txitibar bereganatzeko aukera sortu zenean, ez zuten zalantzarik eduki.

Iker Karrazedorena da azalpena: "Beti egoten zara adi tabernaren bat itxi, edo saldu nahi denean. Astelehen batean jakin nuen Txitibar utzi egingo zuela aurreko jabeak, deitu nion, batzartu ginen, adostasun batera iritsi, eta martxan jarri ginen. Urri erdialdera edo izango zen. Negozioa egiteko aukera ikusi genuen, eta aurrera egin, hori da arrazoi nagusia. Egoera aztertu genuen, han eta hemen galdetu, zer egin genezakeen tabernara jende gehiago hurbil-

tzeko, eta azterketa horrek konbentzitu, Txitibar erosi genuen".

Orduz geroztik, ikusten ez den lan itsusi eta nekagarria: taberna itxuraldatu, txukundu, gremio guztiak xehetasun guztiak lotu, zerbitzariak, janaria eta edariak ekarri... Egoitz Karrazedo: "Mila komeri izan ditugu: Covid-a hartu duten gaixoak, azken orduko langileen bajak, materiala lortzeko ere hamaika arazo eta telefono dei... Baina irekitzeko moduan gaude, eta pozik". Anaia gazteak gogoratu du beren lehen asmoa abenduaren 16an irekitzea zela, eta bost egunez bakarrik atzeratu dutela urrian egindako aurreikuspen hura.

Iluntzeko 7retan ireki zituzten ateak, eta inaugurazioan jan edana musu truk izan zen. Txitibar itxuraldatuta ikusiko du bertaratzen den bezeroak. Taberna dagoen herriko ukitu, bereizgarria eman zalea da Karrazedo-Lizeaga familia, Egoitz anaia gaztea, batez ere, eta horren erakusle da tabernako horma nagusian jarri dituzten lau argazki erraldoiak.

Lehen argazkia tabernara sartu eta berehala ikusiko du bezeroak. Zumea auzoko erretratu zaharra da (Txitibar taberna Zumea plazan dago), trenbidearen bestaldetik ateratakoa. Bigarren argazkia andoaindarrentzat oso ezaguna da, Unanibia zubikoa, Leitzaran ibaian, Otita parkearen ondoan. Hiru metro luze dira bi argazki horiek, oso ikusgarriak. Andoaingo Udaleko artxiboan eskatu zituen argazkiak Egoitz Karrazedok, eta tamainaz handitu. Taberna barruan beste bi argazki handi daude, Reala eta Euskal Herriko futbolarekin zerikusia dutenak. Egoitz anaia gaztea Realeko zale sutsua da, eta futbol zaleek Txitibar berrian



GABON ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ON!

AMABI

haur eta gazte jantziak
0-16 urte

943 57 31 62

Zumea kalea, 15 - behea. ANDOAIN



andoaINDARRA
euskaraz

beren tokitxoa izango dutela jakiteko jarri ditu bi argazkiak. Lehena, Kortabarria eta Iribar, ikurrinarekin, Atotxa zaharrean jokatu zen derbi historikoan, eta bigarrena, Mikel Oiarzabalen penalti jaurtiketa, Realari Kopako titulua eman zion golaren une berezia.

Andoain eta Urnieta artean lau kilometro bakarrik daude, baina Irurain gainak halako muga sortu du bi herrietako jendearen mugimenduan. Iker Karrazedok umoretsu dio, mugak muga, berak Txitibar aspaldi ezagutzen duela, eta gazte garaietan, parranda zalea zenean, taberna itxi bitarte egonaldi batzuk egindakoa badela Txitibar tabernan. Egoitz bera ere herriko eskubalo taldean jokaturakoa da, gaztetan, bi urtez.

Janari ona, salneurri ona

Karrazedo-Lizeaga sendiak eskarmentu handia du ostalaritzaren sektorean, eta eskainiko duten zerbitzua orain arte eskaintzen dutenaren antzekoa izango da. Nerea Karrazedo: "Gure jarduteko modua sinplea da: janari ona, prezio onean. Hala egiten dugu beste hiru tabernetan, eta Txitibar-en ere antzera izango da. Pintxoak, ogitartekoak, plater konbinatuak eta antzeko gauzak. Formula horrekin ondo joan zaigu orain arte, eta antzekoa egiten saiatuko gara Andoain-en ere".

Dekoraziotik harago, jabe berriek garbi dute nolakoa izango den Txitibar berria. Iker Karrazedo: "Ambiente lasaia izatea nahi genuke, musika baxua, andoaindarrak gustura egon daitezkeen txoko bat izatea nahi genuke". Txitibar tabernara joateko ohitura zutenek jakin dezaten, tabernak ez dizkio parranda egiteko aukerari ateak itxiko.



Kortabarriak eta Iribarrek Atotxan Ikurriña atera zutenekoa eta Oiarzabalen gola Kopako finalean, ikono bilakatu diren bi irudi Txitibar berriko horman ikusgai daude. AIURRI

Aste barruan janaria eta giro lasaia izango da nagusi, baina, asteburuan, kopa batzuk hartzeko aukera ere izango da. Egoitz Karrazedo: "Astegunetan 07:00tan irekitzeko asmoa daukagu, Urnietako Guria tabernan bezala, eta, gauean, 23:00ak aldera arte edo jendeak etxerako bidea hartzen duen arte. Ostiral eta larunbatetan itxiera ordua luzatuko dugu goizaldeko 02:00ak edo 03:00ak arte, eta kopatxo pare bat hartu nahi dituenak horretarako aukera izango du. Esan digutenez, Zumea plazaren bueltan, bizpahiru tabernetan gazte jendearen mugimendua badago,

eta horiei beste aukera bat ematen ere saiatuko gara".

Dozena lagun pasa ariko dira lanean Txitibar tabernan, horietako batzuk andoaindarrak. Zumea plaza eta inguruetan herritar asko aritu omen dira galdeztar azken asteetan taberna noiz ireki behar ote zuten. Galderak badu, erantzuna, dagoeneko. Santomas egunean hasita, taberna egun osoz irekita, bertaratu nahi duenarentzat. Abenduaren 24an, Gabon Gauean, eta 31n, Urte Zahar egunean, afal ostean taberna goizaldera bitarte irekiko dutela jakinarazi dute jabe berriek.

CHRISTMAS MARKET

MERKATU SOLIDARIOA

ABENDUAK 29 ETA 30
PLAZA ETXEBERRI 17:00-20:00

SALMENTATIK LORTUTAKO
ETEKIN GUZTIAK PALMARA
BIDERATUKO DIRA

Etxeberr plaza
Unibertsitateko
Lizentziatutako

**Gabon
zoriontsuak!**

KeiNU

www.txapelasybordados.com
www.txapelaketabordatuak.eus

Kale Nagusia, 12. ANDOAIN. 637 283 224
keinuandoain@gmail.com [f](https://www.facebook.com/keinu.andoain) [keinu.andoain](https://www.facebook.com/keinu.andoain)

Izan originala ezkontzetan!
Oparitu Keinuko txapeltxoa gonbidatu bakoitzari!!!



Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Ez. Ez da lan makala Olentzeroekin eta Mari Domingekin hitzartzea, izan ere, urte osoan baserrian ibiltzen dira hara eta hona buru-belarri. Bada, hilaren 17an, ostiralarekin, herrira jaitsi ziren eta Aiurri astekariak tartetxo bat lapurtu zien. Hilaren 24an, etxeko guztiek begiak itxi orduko, irrist egingo dute tximinian behera, opariak banatzeko eta ardoa zein opilak dastatzeko.

Pozgarria izango da zuentzat berriro ere herrira jaitsi eta bertako umeekin egotea, ezta?

Olentzero: Oso pozgarria da guretzat, beti. Kontua da aurten ere zailagoa zaigula, zomorroaren ondorioz. Halere, lasai egon, etxez etxe igaroko gara abenduaren 24an.

Mari Domingi: Azken asteotako eguraldia oso kaskarra izan da, euri-zaparradak direla-eta, uste genuen eskolara jaisteko aukera ere ez genuela izango. Baina, bai, eta ilusioz beterik gaude.

Bigarren urtez, Gabon arraroak izango dira gurean... Nola ospatuko dituzue zuek?

Olentzero: Kontu handiz ibiltzen gara, baina mendian ez daukagu herrian besteko kutsadurarik. Lasaiago bizi gara. Urrietara jaistean, gehiago kezkatzen gara.

Mari Domingi: Hori da, izan ere, musukoa jantzita sartu behar dugu etxeetan. Mendian giro osasuntsua daukagu, eta oso pozik bizi gara.

Zintzoak izan al dira haurrak?

Mari Domingi: Oso ondo portatzen dira beti Urnietako haurrak, eta, egoera zaila bada ere, pozgarria da ikustea zoriontsuak direla. Hori da inportanteena, zoriontsuak izatea.

Olentzero: Normalki, haurrak gurasoak baino hobeto portatzen dira, gainera. Oso zintzoak dira, eta guztiek merezi dute jostailuren bat edo beste.

Beraz, aurten, ikatza, helduentzat.

Olentzero: Batzuentzat, bai, karkarkar! Hala ere, gero eta gutxiago banatzen dugu, kutsadura medio.

Zein opari eskatu dituzte haurrak?

Mari Domingi: Pokemon jostailuak izan dira aurten txapeldun. Panpinak ere eskatu dituzte, baita traktoreak ere. Ilusioz beterik daude haurrak.

Nahiz eta egoera zaila izan, ez duzue kale egingo, ezta?



Mari Domingi eta Olentzero, aurreko ostiraleko argazkian. AIURRI

“Haurrei erregaluak egitea da guretzat opari onena”

MARI DOMINGI ETA OLENTZERO IZAKI MITOLOGIKOAK

Abenduaren 24 gauean, Euskal Herri osoa zeharkatuko dute Olentzerok eta Mari Domingik, opariak banatzeko

Mari Domingi: Ezta pentsatuta ere! Andoainen eta Urnietan kalez kale, etxez etxe arituko

gara; nahiz eta euria egin, nahiz eta hotza izan, baita elurra egingo balu ere! Haurren alboan

izango gara, atez ate. Txikitxoak ez dira jabetuko, baina ez diegu hutsik egingo.

Euskal Herriko tximini guztietan utziko dituzue opariak. Zuentzat gordeko al duzue zerbait?

Mari Domingi: Haurrei erregaluak egitea da guretzat opari onena. Bihotz barrenetik, muxu pila bat banatuko ditugu.

Olentzero: Guretzat zoragarria da herrira jaitsi eta umeekin egoteko aukera izatea.

Amaitzeaz da urtea, zer eskatzen diozue datorrenari?

Olentzero: Ea amaiera ematen diogun zomorroak sortutako egoerari eta, pixkanaka-pixkanaka, normaltasunez bizitzen hasten garen; poztasuna behar dugu apur bat makur gaude eta. Horixe eskatzen dugu: zoriontasuna eta osasuna.

Mari Domingi: Ene ene, gutxi iruditzen al zaizu eskatzen ari zarena? Pozik bizitzea eta lagunekin egotea nahi dugu, horixe baita ezinbestekoena.

Olentzero: Muxu handi bat irakurle guztientzat!!!

Haurtxo maiteok, gozo egin lo abenduaren 24an. Eta, esna-tzean...

Gabon giroko egitarauan aldaketak izango dira

Andoaingo Udalak "Gabon Giroan" ekitaldi-sortarekin aurrera darrai, baina egoera epidemiologikoaren arabera antolaketa gauzatuko du. Olentzero eta Errege Magoen ekitaldiak bertan behera utzi aurretik, ekitaldiak moldatu dituzte

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Gerta zitekeenaren aurrean, Gabonetako egitaraua hasieratik behin-behinekoa zela adierazi zuen Andoaingo Udalak. Zoritxarrez, behin-behineko hori moldatu behar izan da. Egoera ez da batere ona, koronabirusak eragindako intzidentzia-tasa handia tarteko: "Hasieratik ohartarazi zen Gabon Giroan programazioak aldaketak izan zitzakeela, ekitaldiak bertan behera uzteraino. Hala izango da. Gabonetako Haur Parkea bertan behera geratuko da, ezin izango baita erabateko segurtasuna bermatu. Urte Zahar gauerako Nafarroa plazan aurreikusita zegoen DJ Nemux disko jartzailearen emanaldia-ekin berdin gertatuko da, eta hori ere bertan behera geratuko da".

Bertso-poteorik ez, bertso kalejira bai

Urtarrilaren 2an Maizorri txalaparta eskola eta Punttuka bertso-eskola kalera irtengo dira. Udalerriko hainbat tokitan saioak eskainiko dituzte, beti ere eguraldiak laguntzen badu. Izan ere, euriarekin bertan behera geratuko da irteera. Bazterrean utzi dutena bertso-poteoa izan da, egoera honetan janariaren



Bertso-poteoaren orde, bertso saioak eskainiko dituzte hainbat tokitan. AIURRI

eta edariaren kontsumo kolektiboa bereziki zaindu behar baita.

Txirri, Mirri eta Txiribitonon emanaldia atzeratu egin dute

Abenduaren 22rako iragarrita zegoen, baina artistak ere ez daude birusetik salbu. Taldeki-de batzuk koronabirusari dagozkion neurriak hartu behar dituztela-eta, saioa atzeratu egingo dute. Datorren urtarrilaren 4an izango da, arratsaldeko 17:00tan hasita. Sarrera erosita zutenek data berrian erabi-

li ahal izango dute. Data berrian joan ezin duenari dirua itzuliko diote.

Egoera aldakorra da oso, eta gerta daiteke aldaketa berria izatea. Hala gertatuko balitz, adi Bastero Kulturguneko eta Aiurriko webguneetara.

ABENDUAREN 29TIK 31RA ALLURRALDEN EGITEN DEN HAUR PARKEA BERTAN BEHERA GERATU DA

Aldaketak Gabon Giroan zikloan



Harrera ekitaldia Udaletxeko balkoitik izango da. AIURRI

Kalejiraren orde, harrera-ekitaldia Herriko kaleetan ohikoa den kalejira bertan behera utziko dute egoera epidemiologikoa dela eta. Abenduaren 24an, arratsaldeko 17:30ean, adierazpena egingo dute udaletxeko balkoitik.



Haur Parkea Allurralde kiroldegian, artxiboko irudian. AIURRI

Gabonetako Haur Parkea eta DJ saioa bertan behera

Abenduaren 29, 30 eta 31rako Allurralde Kiroldegian ohikoa den haur parkea bertan behera geratu da, eta baita urte zaharreko DJ gaua ere.



Meltxor, Gaspar eta Baltasar Udaletxean, artxiboko irudian. AIURRI

Errege Magoen bisita Goiburutik abiatzen zen irteera bertan behera geratu da. Errege Magoek herriko auzoak ibilgailuz zeharkatuko dituzte, eta iluntzeko 20:00etan udaletxeko balkoitik adierazpena egingo dute.



Ingeles eskola
Eguberri, eta Urte berri on!
Merry Christmas and a Happy New Year

Cambridgeko azterketen prestakuntzarako zentro homologatua

Ondarreta kalea, 7 behe. ANDOAIN
943 300 839. www.andoainenglish.com





Gipuzkoako zenbait "Jesuitina", herenegungo ekitaldian: Ana Zubiri, Pakita Lizaso, Lurdes Lete, Maria Dolores Alonso, Blanca Ester Iriarte, Maria Angeles Eskudero, Koro Agirre, Mari Karmen Orbegozo eta Rosario Iraola. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Maidar Lainez eta Txitxu Ruiz udal ordezkariak, Iñaki Zabaleta Andoaingo San Martin elizako parrokoak eta Kongregazio-ko ordezkari Blanca Ester Iriartek hartu zuten hitza, eta guztiek ere 2010ean Erroman Santu aitortu zuten Ama Kandidaren bertuteak goraipatu zituzten; bere garairako emakume aurreratuak jo zuten, neska gazte txiroen hezkuntzan kementsu saiatu zelako.

Ama Kandidaren ibilbide oparoa

Juana Josefa Zipitria Barriola "Ama Kandida" Kaletxikin sortu zen, Berrozpe baserrian, hain zuzen, 1845eko maiatzaren 31n. Salamancan, 1912an hil zen.

Ibilbide emankorra osatu zuen Ama Kandidak, eta 2010ean Benedicto XVI. Aita Santuak Erroman kanonizatu zuen. Hona segidan, andoaindarraren biografia laburtua, zenbait datu esanguratsuren eskutik.

17 urte inguru zituela, Burgo-sera joan zen. Zazpi ahizpetan zaharrena zen eta ez zuen heziketarik jaso. Horrenbestez, nekame lanetan hasi zen familia aberats batentzat. Familia hura

Jesusen Alaben kongregazioak 150 urte

Ekitaldi berezia egin zuten Berrozpen abenduaren 15ean, Jesusen Alaben Kongregazioa beren urteurren borobila ospatzen ari dela eta. Hizlari ugari hartu zuten hitza, eta Musika Eskolako helduen abesbatzak emanaldia eskaini zuen

Valladolidera joan zen bizitzera eta bera ere bai, haiekin batera. Valladoliden zegoela ezagutu

AMA KANDIDA IZAN ZEN GERORA MUNDU OSORA ZABALDU ZEN KONGREGAZIOAREN SUSTATZAILEA

zuen Miguel Herranz jesuita. Haren laguntzarekin erabaki zuen bere etorkizuna erlijiora eta heziketara bideratzea, batez ere emakumeei zuzenduta.

Salamancara joateko erabakia hartu zuen orduan, garai hartako hezkuntza-gune nagusia bertan zegoelako.

1871eko abenduaren 8an Jesusen Alaben kongregazioa

sortu eta hezkuntza arloan lanean hasi zen, 26 urte zituela. Beste bost emakumerekin ba-

BERROZPEKO ELIZAKO KOROAN ZEUDEN AGIRI HISTORIKOEN DIGITALIZAZIOA IRAGARRI DUTE

tera eman zituen lehen pausoak. Denbora gutxira, zenbait eskola irekitzea lortu zuen, Salamancan eta inguruko herrietan lehendabizi, eta beste hainbat tokitan geroago. Gaztela inguruan hainbat ikastetxe zabaldu ondoren, Euskal Herrira zabaldu zuen bere ekimena. Hemen ere eskolak eraikitzen hasi baitziren.

Bera hil aurretik, Brasilen bi etxe irekita zeuden dagoeneko. Filipinetan, Hego Amerikako hainbat herrialdetan, Afrikan, Asian... Geroztik hona, Jesusen Alaben kongregazioa premia larrian dauden herrietan presente dago. Hain justu, munduko 190 herrialdeetan zabaldua dago, eta 21 ikastetxe dauzka bere ardurapean. Eginkizun ebanjelizatzailea da kongregazioaren helburu nagusia, eta hainbat arlotan aritzen dira bere kideak: hezkuntza arautua, katekesia, osasunaren pastoral-tza, alfabetatzea, emakumearen sustapena, gizarte eta eliz erakundeekiko lankidetzak...

Berrozpe kapera

XIX. mendean Berrozpe baserria zenbait etxebizitzatan banatua zegoen eta bere familia eskuin aldera zegoen bizigunean bizi zen. Urteak pasa ahala, Berrozpe baserria hutsik geratzen joan zen eta 1926an enkantean jarri zuten. Oso egoera txarrean zegoen ordurako. Juan Olazabal donostiarra erosi zuen 1926ko urriaren 12an, 12.000 duoren truke. Etxea Jesusen Alaben kongregazioari oparitzea erabaki zuen, baina etxea ez zen erabilgarri izan 1946ra arte.

Egun, mundu zabaletik, Kongregazioko kideen eta fededunen bisitari ugari hurbiltzen da Andoainera. Berezik, Ama Kandidaren jaioterria ezagutu asmoz.

Agiri historikoak, digitalizatuak

Ekitaldian, Myriam Ulanga musikariak jakinarazi zuenez, bere garaian Berrozpeko elizako koroan zeuden zenbait partitura (tartean, "Ama Kandida" abestia) eta eskuizkribu hartu egin zituzten, digitalizatzeko asmoz. Geroztik lan horretan aritu dira Roberto Nuño eta Myriam Ulanga bera, eta, abenduaren 15ean, itzulketa ekitaldia burutu zuten; Txitxu Ruiz kultura zinegotziak Kongregazioko kide den Lurdes Leteren esku utzi zituen digitalizatutako agiriak.



Katrin Iturraldek zuzentzen duen Musika Eskolako helduen abesbatzak emanaldia eskaini zuen; besteak beste, "Ama Kandida" eta "Berrozpe" abestiak interpretatu zituzten. AIURRI

Bi abesti, ez oso zabalduak

Udal Musika Eskolako helduen abesbatzak lau abestik osatutako kontzertua eskaini zuen; tartean, andoaindarren artean behar bezainbat zabalduak ez dauden Ama Kandida eta Berrozpe.

Ama Kandida abestia Joan Luis Atxegak konposatu zuen, eta Pello Esnalek hitzak jarri zizkion. Hona bere hitzak:

"Hemen bildu gaituzu zuk, Ama Kandida: zure ametsak eta gureak bat dira. Zure proiektuari darion distira gure bizitza ere

argitzen ari da. Zure da. Behartsuentzat tokirik ez dutenen etxean, niretzat ere ez dago ez haien etxean eta ez haien bihotzean (bis).

Lehen ametsak zaindu zizkizun herriak bereak ditu zure gose egarriak, bereak nahi lituzke zure iturriak, maitasunez lantzeko gizaki berria. Bereak. Behartsuentzat tokirik badutenen etxean, niretzat ere badago bai haien etxean eta bai haien bihotzean (bis)".

Berrozpe abestia, berriz, Karmen Azpiazu Jesusen Alabaren sormenetik irtendakoa da 1946an, Berrozpe baserria kapera gisa moldatu eta inauguratu zen egunerako espreski egina. Aniceto Zugastik ipini zizkion letrak:

"Berrozpe gure Berrozpe, etxe "zaar" berritua/"Leio txiki artan" dezu. Amatzoren sorlekua (bis)/ Antziña Amaren sorleku, orain Jaunaren etxea./Gaurtik Amaren elizatzxoan, Biziko Jesus maitea!/Berrozpe zu izango zera, guretzat poz iturria./Beti zu gaurtik aurrera, gure maitasun kabia!".



gozotegia

Gabon
zoriontsuak!

arruti



Zumea kalea, 18. ANDOAIN. 943 593 777



Leizaran eskubaloitako taldeko neskek Allurralden egindako prestaketa-saioan. AIURRI

"Ez genuen espero hainbeste garaipen eskuratzea"

OLATZ DIEGUEZ ETA IZARO TAPIA LEIZARAN ESKUBALOI TALDEA

ESKUBALOIA Senior taldean ari da jokatzen Olatz Dieguez andoaindarra; jubeniletan, Izaro Tapia, herrikidea. Bi taldeak denboraldi bikaina egiten ari dira

Mikel Arberas ANDOAIN

Garaipen asko lortu dituzue bi taldeek norgehiakoetan. Martxa ona, ezta?

Olatz Dieguez: Bai. Gainera, aurten, senior taldea atera dugu, eta ez genuen espero hainbeste garaipen eskuratzea.

Lehiakortasun handia al dago aurten denboraldian?

Izaro Tapia: Partida zailak ere izan ditugu, baina talde gisa nahiko

ondo ari gara jokatzen, eta oso pozik gaude.

Zein aurreikuspen egiten zenuten denboraldi hasieran?

O.D.: Gure kasuan, berria zen taldea, eta denboraldia egin ahal izatea zen gure helburua. Hala, emaitzak ez zitzaizkigun hainbeste axola.

Zaila egin al zaizue, Olatz, taldea ateratzea?

O.D.: Bai. Ia talde osoa bigarren urteko jubenilok osatzen dugu. Senior kategoriako taldekideak ere badira, baina justu.

Oro har, postu onean zaudete. Urnietaren pareko zabilzate, goran.

O.D.: Gainera, nire ustez, Urnietak da gure erronka handiena.

Jubenilei dagokionez, zer moduzkoa izaten ari da liga, Izaro?

I.T.: Iragan denboraldian uste baino hobeto gelditu ginen, positiboa izan zen emaitza. Aurten ere gustuora gabilta; izan dugu partida zailarik.

Nolakoak dira entrenamenduak?

O.D.: Hiru entrenamendu izaten ditugu: astean bi egunez, jubenilekin batera entrenatzen dugu seniorrok. Horrez gain, nork

Gabonetako txapelketa berezia

Gabonetako egitarauari amaiera emango dio urtarilaren 8ko asteburuak. Andoain emakumezkoen arteko lagunarteko txapelketa antolatu ohi du Leizaran eskubaloitako taldeak, dagoeneko hogeigarren edizioa bilakatuko dena. Aurtengoan Euskadiko eta Nafarroako taldeak gonbidatuko dituzte infantil, kadete eta jubenil mailatan. Goizez eta arratsaldean ariko dira Allurralden eta Arrate pilotalekuan.

bere kabuz entrenatzen du egun batean, asteko partida prestatzeko.

Pandemiak eraginik izan al du zuen jardunean?

O.D.: Aurten, ez hainbeste; iaz, gehiago. Gehienak txertaturik gaude, eta, emaitza negatiboa jasoz gero, ez dugu zertan konfinatu.

Zein aurreikuspen egiten duzue datorren urteari begira?

I.T.: Hiru partida gelditzen zaizkigu jokatzen ari garen liga amaitzeko. Ez dakigu zer datorren ondoren. Hori horrela, bigarren postua eskuratzen ahaleginduko gara, gutxienez. Nahiz eta aukera galdu dugun mailaz igotzeko.


O.D.: Urnietari irabaztea da gure helburu nagusia. Bestalde, mailaz igotzea ere ederra litza-teke.



ORMENDI KIROLAK

943 591 806

Kale Berria, 2
ANDOAIN
ormendikirolak@euskalnet.net





Adarrako ikuspegia, Besabitik. RUTAS



Jonathan Lopez urnietarra Adarrako mendi gainan. URNIETAMETEO

“Isiltasun handia dago gauez; merezi du igoerak”

MENDIZALETASUNA Adarrara txangoa antolatu du Zanpatuzek, hilaren 23an. Arratsaldeko 18:00tan abiatuko dira Besabitik, 17:30ean San Juan plazatik. Jonathan Lopez urnietarrak deialdian parte hartzen duen Urnietako mendizaleetako da

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Aski ezaguna da urte berriari ekitearekin batera makina bat urnietarrek duten ohitura: gaupaseroek nahiz ia mahatsak jan gabe oheratu direnek topo egiten dute urtarilaren lehenean Adarra mendiaren punta-puntan, salda beroaren epeletan. Dena den, bada herrian, neguko solstizioaren bueltan ere hitzordu berezirik: Adarrara igoera, gauez. Zanpatuz herriko mendi elkartea dago jada usadio bihurtutako txangoaren atzean. Ilargiaren pean, motxila hartu, linterna kopetera itsatsi eta mendian gora abitzen dira bizilagunak.

Aurten, hilaren 23an, ostegunarekin, egingo dute irteera, ilargi betearen argiaren laguntzaz. Horrela, arratsaldeko 18:00tan abiatuko da taldea Besabitik. Hala ere, aurretik, nahi duenarentzat eta auto-pilaketak saiheste aldera, 17:30ean San Juan plazan batuko dira.

“Txango berezia da”, dio Jonathan Lopez urnietarrak. Zanpatuz elkarteko kide da eta mendian egun argiz ibiltzea nahiago badu ere, gustoko du irteera: “Isiltasun handia dago gauez; merezi du igoerak. Lasaia goa da bidea, eta hobeki deskonektatzeko aukera ematen du”.

Iragan urtean ez zen txangorik izan, pandemiak eragindako egoera medio. Hortaz, elkarteko kideak dio gogo biziz daudela, aspaldiko partez batu eta mendiaz gozatzeko: “Jende asko da mendizalea Urnietan; gustoko dute herritarrek mendira joatea”.

Horrenbestez, aukera polita dute mendizaleek ostegun iluntzea. Elkartetik gogorarazi dute: “Gomendagarria da linterna ematea, eta, eguraldiaren arabera, neguko arropa janztea”.

Kiroldegi berria, azken txanpan

Gero eta gutxiago falta zaio kiroldegiari ateak irekitzeko: 2022 hasieran, lanak amaituta izatea espero du Udalak

Erredakzioa URNIETA

Kiroldegia eraberritzeko gauza-zen ari diren lanak azken txanpan murgilduta daude dagoeneko. Obra aurreikusitako epeetan garatzen ari da eta 2022. urtearen hasieran lanak amaituta egotea espero da. Udalak adierazi lez, obra amaitu bezain

pronto, ekipamenduaren instalazioari hasiera ematea da asmoa, “denborarik galdu gabe, kiroldegi berria, ahalik eta azkarren, herritarren eskura jartzeko”.

Horretarako, beharrezko ekipamendua esleitzeko lehiaketa publikoa egin da. Esleipena hiru lotetan banatu da, eta atal ba-

koitzean enpresa esleipendunak honako hauek izan dira:

- Kardio eta muskulazio geletako makineria: Exercycle S.L (BH).
- Aldageletako mobiliarioa (leihatilak, eserlekuak...): Aluminios Azpeitia S.L.
- Lurzoruak eta kirol ekipamenduak (pista berrirako lurzorua eta porteriak, padel eta teniseko pistetako lurrak...): Soluciones Decorativas Ibaizabal (SDI Sport Floor).

Hala, irekiera “gero eta gertuago” dagoela iragarri du Udalak.



Gutxi falta zaio Urnietako kiroldegiari. AIURRI

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 24

ANDOAIN Irteera

Gora Kaletxiki Banda Andoaingo kaleak alaitzen ariko da. Joxe Mari Oiarzabalek zuzenduko du.

12:00, Goikoplazatik abiatuta

IGANDEA 26

ANDOAIN Antzerkia

"Bost minutun". Antzezleak Andoni Agirregomezkorta eta Itziar Urretabizkaia.

19:00, Bastero.

URNIETA Antzerkia

"Alpha", hitzik erabiltzen ez duen antzezlan, adin guztientzat zuzendutakoa.

17:30, Sarobe.

ASTELEHENA 27

ANDOAIN Bakarriketa

"Nekatutak", Antton Telleria.

19:00, Bastero.

ANDOAIN Erakusketa

Erraldoi eta Buruhandien konpartsa ikusgai erakusketa gelan, Gabonetan.

Abenduak 27-Urtarrilak 8.

ASTEAZKENA 29

URNIETA Ikus-entzunezkoa

"Aztarnak" haurtzarolari buruzko hausnarketa.

17:30, Sarobe.



Mari Domingi eta Olentzero 2019an ateratako argazkian. AIURRI

ANDOAIN Olentzero eta Mari Domingi

Olentzero eta Mari Domingik bisitaldi azkarra egingo dute Andoainera, lanez lepo dabilta-eta. Baina ez dira agur esan gabe joango. Etkez etxe ibiliko dira gaueko ordu txikietan, baina aurretik Udaletxeko balkoitik agurtzeko aukera baliatuko dute.

Abenduak 24, ostirala. 17:30, Goikoplaza.

IGANDEA 2

ANDOAIN Bertsoa eta txalaparta

Bertso potearen orde, bertsoak eta txalaparta saioak udalerriko hainbat tokitan.

Udalerrian barrena.

ASTEAZKENA 5

ANDOAIN Errege Magoak

Aurtengoan ez da kalejirarik izango, eta udaletxeko balkoitik adierazpena egingo dute.

20:00, Udaletxeko balkoia.



Kursaalen estreinatuko dute Xarma ikuskizuna, abenduaren 26an. AIURRI

"Xarma"ren aurkezpena Saroben

Oreka TX bandak hurrengo hilabeteetan antzoki eta plazetara eramango duen Xarma ikuskizuna aurkeztu zuen, Saroben, arte eszenikoen gunean. Diziiplina artistiko zein eszeniko ugari uztartzen dituen ikuskizuna da. Publiko orori begira, haurrak zein helduak "xarmatzeko" gonbidapena izan nahi du, egileen esanetan.

Ikuskizuna prestatzeko artista guztiak Saroben bildu dira udazkenean. Igor Otxoa eta Igor Martinez de San Vicente zuzendari artistikoek eta Maika Etxekopar abeslariak prentsaurrekoan eman zuten ikuskizunaren berri, Saroben bertan. "Musika jotzeari ingelesez *to play music* esaten zaio, musikarekin jolastea. Esaten dute ez diogula jolasteari uzten zahartzen garelako, jolasteari uzten diogulako zahartzen garelako, eta Xarma ikuskizunean sorgindutako unibertso bat betetzen duten pertsonaiek berriz ere jolastu eta magian sinisteko akuilatzen gaituzte".

Diziiplina artistiko eta eszeniko ugariren emaitza da "Xarma". Oreka TXeko kideekin batera, Kukai dantza taldeko dantzariak igoko dira taulagainera. Halaber, ametsezko atmosfera erantsi nahi diote "Xarma"-ri, eta, horregatik, zirkuari ere tokia egingo diote: Berdinki zirku konpainiako Irati Gonzalezek eta Koldo Arakistainek oihalak baliatuta egindako aireko zirkua eta trapezio bikoitza ikuskizuna, eta Xabier Larrea eta Gorka Pereiraren eskutik malabarrak eta baskula akrobatikoa. Elementu eszeniko gisa txotxongilo erraldoiak eta jostailu handiak batu dituzte ikuskizunera, iruditeria majikoa transmititu asmoz.

Maika Etxekopar abeslaria ikuskizun guztiaren gidari bilakatuko da; pertsonaia ameslariaren paperan mozorrotuta, ikusleak ezinezkoa posible izango deneko sorgindutako dimentsio horretan murgiltzeko.



POSTONTZIA

KANPEZU KANPALDIA ANDOAIN

Kanpezuk 50 urte



Kanpezuko udalekua, artxiboko irudian. AIURRI

Kanpezu kanpaldia La Salle Berrozpek udaro, lan-talde bolondres bati esker, ikasleei eta andoaindar askori eskaintzen dien esperientzia aberats eta disfrutagarria da, naturan murgildurik elkarbizitza jatorra eta sortzailea euskaraz izateko helburuarekin. Eta, ikasturte honetan, 50 urte beteko du!!!

2022ko udaberrian denok ilusioz elkarrekin ospatzeko asmoz ekitaldi bereziak antolatu nahi ditugu. Horretarako ibilbide luze horretan partaide izan zaretan ehundaka lagunei, berri-

ro ere, zuen lankidetzak eskatu nahi dizuegu (ikasleak, monitorea, sukaldariak, muntai eta mantenimendukoak, kanpezu@lasalleberrozpe.eus arduradunak...): mesedez, urte horietako materialak pasa (argazkiak, bideoak, audioak, testuak, etab). Korreoz bidali ditzakezu edo eskolan bertan entregatu (abendua 22ra arte, astean zehar, 16:00etatik 18:00etara) eraikin nagusiko sarrerako gelan; eskuz jasotako azken horiek urtarrian itzuliko zaizkizue.

Eskerrik asko!

**"UDABERRIAN
OSPAZTEKO
EKITALDI BEREZIAK
ANTOLATU
NAHI DITUGU"**

**"EHUNDAKA LAGUNEI
LANKIDETZA
ESKATZEN ARI GARA
MATERIAL
BILKETARAKO"**

Elkartasuna Andoaindik

Kanariar uharteetako La Palma irlako sumendiak kalteak eragin ditu eta elkartasun-keinu ekimen ugari sortu dira, han eta hemen. Andoainen lantaldea osatu da, eta aurreko asteburuan, Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian elkartasunezko merkaturak antolatu zuten. Produktu asko zegoen eskura, eta lortutako dirua irlako biztanleei bideratuko zaie.



Boluntario askoren lanari esker atera da aurrera azoka. LAPALMA



Omenaldi ekitaldian parte hartu zuten herrikideak. AIURRI

Elkartasunez beteriko keinua da odola ematea

Andoaingo Odol-emaileen elkarteak dozenaka aldiz odola eman dutenei omenaldia eskaini zien

Xabier Lasa ANDOAIN

Andoaingo Odol emaileen elkarteak omenaldia eskaini zien odol emaile bereziei. Aurtengoan sei herritarri egin zaie aitortza: Joxe Inazio Aranburu Aranburu (25 bider); Ana Isabel Zalakain Mendizabal (25 bider); Imanol Ansa Etxeberria (50 bider); Juan Antonio Alduntzin Garrido (75 bider); Maria Lourdes Escudero Ruiz de Larrinaga (80 bider); eta, Bixente Zabala Huizi (100 bider). Aitortza ekitaldia udal txeko pleno aretoan egin zuten, aurreko ostiral iluntzean.

Adierazpenak

Maidar Lainez Andoaingo alkateak sarituek urte luzez erakutsi duten elkartasuna goraitu zuen, "ezeren truke ematen duzuen odol horrekin bizitzak salbatzen dituztelako. Andoaindarron esker ona adierazi behar dizuegu".

Joxe Mari Tolosak Andoaingo odol emaileen elkartearen ize-nean hartu zuen hitza: "Omen-duek erruz erakutsi dute konstantzia eta eskuzabaltasuna zer den. Ezagutzen ez ditugun makina bat gaixorentzat izan da baliagarri zuek urtetan emandako odola. Ez dakigu nortzuk diren gaixo horiek, baina badakigu hor daudela, hain justu, zientziak sortu ez dezakeena jasotzeko zain". Covid-ak eragindako mundu mailako krisiak "gizakien alderik onena eta gaiztoena" erakutsi digula esanez jarraitu zuen Tolosak: "Jarrera berekoi, friboloak eta elkartasunetik gutxi dutenak igarri ditugu. Baina baita jokaera solidarioak eta arduratsuak ere. Aurrenekoak ez zaizkigu interesatzen; beste horiek bai, ordea! Harro sentitzen gara horiekin! Ba al dago odola ematea baino elkartasun keinu ederragorik!!!

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Hodei Rabadan
Gure mutiko maiteak, 5 urte beteko ditu urtarilaren 5ean. Denon partetik muxu handia.



ANDOAIN
Zorionak June
Dagoeneko 23 urte abenduaren 30ean! Etxeko txikiena ere goraka doa! Muxu pottoloak! Etxekoak.



ANDOAIN
Elene Idigoras
Alfageme
Zorionak maitia! Disfruta dezazula zure eguna... Muxu erraldi bat etxekoan partez!



ANDOAIN
Indar Fernandez
Abenduaren 30ean 2 urte beteko dira gure bihotzetan sartu zinenetik! Ez galdu inoiz irribarre hori. Maite zaitugu.



ANDOAIN
Xune
Zorionak Xune! Abenduaren 28an bederatzi urte. Uau! Handitzen ari zara! Muxu handia, ondo pasa! Etxekoak.



ANDOAIN
Adei
Bederatzi urte! Zorionak pitxin! Segi orain bezain alai eta jator! Muxuak etxekoan partez!

Urte askotarako!

- www.aiurri.eus Zorion agurrak atalean
- **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37
- diseinua@aiurri.eus
- **Arantzibia 4-5, behe** Andoain
- **Telefonoa:** 943 300 732

Elkartasunezko giza katea

Aurreko larunbatean, Ruben Gelbentzu andoaindarrari eta Jon Lizarribar urnietarrari elkartasuna adierazi nahi izan zieten, Zumea plaza Bastero plazatxoraino egin zen elkarretaratzean. Haien aurkako kausa itxita zegoen aspaldi, eta berriro ireki dute. 27an deklaratu egin beharko dute; andoaindarrak Iruñean eta urnietarrak Donostian.



AIURRI



"Galardi haurreskolak behar zuen bere logoa"

NEREA ORMAETXEA AMIAMA DISEINATZAILEA

Galardi haurreskolak daukan irudi berriaren egilea da, "Ikusi eta ikasi" izenburu duena. Marrazketarako sormena betidanik izan duela aitortu du andoaindarrak

Xabier Lasa ANDOAIN

Poztuko zinen epaimahaiak zure proposamena bereizi izanagatik...

Izugarri! Ezustekoa izan zen, egia esan, ez bainuen espero. Alderdi askotatik egin zait pozgarria, izan ere epaimahaiko kideei ez ezik Galardiko langileei edo herriko jendeari ere asko gustatu zaie irudia.

Bultzada emango zizun bide beretik segitzeko etorkizunean...

Bai, noski. Lehiaketan mundua ezezaguna zitzaidan, eta beldur pixka bat ematen zidan hor murgiltzeak. Probatzera jo nuen, eta ondo atera zait apustua. Aurreantzean bide beretik segitzera animatzen nau saritu izanak. Jaietako esku-programen azalei, informaziorako esku orriei, logoei eta edonolako ekitaldi publikoei begirako lehiaketak antolatzen dira, eta horietara lehen baino erreparatu gutxiagorekin aurkeztera animatuko naizela iruditzen zait. Zergatik ez?

Zer islatu nahi izan duzu Galardiko logoa?

Haurra izan, heldua izan, guztiek ere logoa ikusi orduko haurreskolarekin modu erraz batean identifika zezaten lortu nahi nuen; horixe transmititzea izan zen nire lehenbiziko asmoa eta ideia. Horrela, hainbat osagai hartu nituen kontuan, eta guztiak ba-



Nerea Ormaetxea diseinatzailea, Galardi haurreskolaren aurrean. AIURRI

tzen saiatu nintzen. Galardi eraikina bera islatu nahi nuen logoan, eta, horretarako, forma geometrikoak (umeen jolasekin

lotzen diren hirukiak, laukiak...) erabili nituen. Gainera, kolore argiekin jolastu nuen, ortzadarraren koloreez baliatuz. Batzue-

tan, abstrakzioetik jotzeko joera egoten da erakunde jakinen logoak egiteko orduan, baina ez nuen hortik joan nahi. Nahiago nuen zuzen-zuzena izatea, aurreneko ikustaldian Galardi eraikinarekin identifikatzeko moduan, eta beraz, lerro zuzenak erabili nituen. Iritzia eman didaten pertsona guztiek aitortu didate polita dela eta Galardi garbi irudikatzea lortu dudala. Niretzat satisfazio handia da hori entzutea.

Apirilean onetsi zuten logoa, eta, jadanik, itsatsi dute Galardi eraikinean bertan, bere web orrian eta beste hainbat agiri eta euskarritan. Ilusioa egiten dit, ikusten dudana aldiro. Irudiaren gizartean bizi gara, eta nahitaezkoa bihurtu da edozein motatako erakunde, ikastetxe eta abarrek beren marka edo nortasun propioa eta identifikagarria edukitzea. Alde horretatik, Galardik ez zeukan logorik, eta behar zuen eduki. **Logoen sorkuntza, gutxietsia dago batzuetan...**

Egoten da, bai, gutxiesteko joera. Irudi bat aurrez-aurre jarri, eta pentsatzen da di-da batean asmatutakoa dela, edonork berehalako batean egin zezakeen gauza dela. Ez da baloratzen atzean dagoen formakuntza artistikoa, sormen prozesua, inspirazioa... Nik Galardiren logoa sortzerako, aurrez dokumentazio lana egin nuen, haurreskola beraren historia irakurri, argazkiak ikusi... Gero, ordu mordo pasatu nuen buruari jiraka

"IRUDIAREN GIZARTEAN BIZI GARA, ETA NAHITAEZKOA BIHURTU DA LOGOA ERAKUNDEENTZAT"

irudiak egin eta egin, azkenean egokiarekin asebeteta geratu nintzen arte.

Nondik datorkizu irudiak sortzeko zaletasuna?

Betidanik eduki izan dut marrazketako gogoia. Txiki-txikitik, margoak eta orri zuriak nirekin edonora eramaten nituen. Berdin zitzaidan non, ederki entretentzen nintzen marrazketak eginez, eta, alde horretatik, ez dut uste gurasoei arazo handirik ematen nienik (barrak). Bizpahiru urtez Marga Oiartzun eta Eduardo Arreseygorren sormen tailerreko ikaslea izan nintzen; han zeinbait teknika ikasi ahal izan nituen buztina eta marrazketa lantzeko. Urtetan aurrera marketing eta diseinu grafikoko ikasketei ekin nien, buruan neuzkan ideak garatzen lagunduko zidatelakoan. Lan munduan, komunikazio agentzia batean praktikak egiten aritu nintzenean diseinu grafikoaren arloa barrutik ezagutu ahal izan nuen. Nire kontura, *freelance* baten modura aritzeko tentazioa eduki nuen iraganean, baina ohartu nintzen oso zaila dela irtenbide hori, bezero ugari behar dituzulako eduki. Moda diseinuak ere erakartzen dit, diseinatu izan ditut jantzi batzuk, baina mundu horretan aurrera egitea ere ez da batere samurra.

Une horetan, enpresa bateko marketing saillean ari naiz lanean, eta kartelak, folletoak, diptikoak eta antzeko argitalpenak diseinatzea egokitzen zait.

"MARKETING ENPRESA BATEAN ARI NAIZ LANEAN, ARGITALPENAK DISEINATZEN"

Ernaitza liburudenda

Eguberritako eskaintza bikaina

Gurean topatuko dituzu:

- Durangon aurkeztu diren nobedadeak.
- Kultura bonoaren onurak.
- Joku, jolas eta opari gaiak.

Zumea, 9. Andoain. 943 592 459
ernaitza@yahoo.com